

**Si eres original, eres de libro lehiaketa  
2010-2011 edizioa  
Oinarri guztiak**

- 1.- Helburua**
- 2.- Egutegia**
- 3.- Sariak**
- 4.- Parte hartzeko baldintzak**
- 5.- Izen-ematea**
- 6.- Lanak bidaltzea**
- 7.- Lanak ebaluatzea eta argitaratzea**
- 8.- Epaimahaiaren erabakia**
- 9.- Eskubideak erreserbatzea**

## **1 Helburua**

- a. *Si eres original, eres de libro* lehiaketaren helburua da **DBHko, Batxilergoko eta lanbide-heziketako erdi-mailako heziketa-zikloetako ikasleek ikerketa-lan** originalak egitea beren intereseko gai bati buruz: musika, zientzia, literatura, artea, natura, historia, zinema, kirolak, filosofia eta pentsamendua, teknologiak, matematika...
- b. Lanak **Espainiako hizkuntza ofizial guztietan** aurkez daitezke.
- c. **Web bidez** baino ez da kudeatuko lehiaketa:
  - Izen-emateak: formularioa linean (Eman izena)
  - Kontsultak (concurso@esdelibro.es)
  - Lanak lehiaketara bidaltzea: formularioa linean (Bidali lana).

## **2 Egutegia**

- a. Lehiaketa **2010eko irailaren 15ean** hasi, eta **2011ko maiatzean** bukatuko da. Hona hemen prozesu osorako ezarrita dauden datak:
  - 2010eko irailaren 15a. Izena emateko eta lanak entregatzeko epea irekiko da.
  - 2011ko otsailaren 1a. Izena emateko epea itxiko da.
  - 2011ko martxoaren 30a. Lanak entregatzeko epea amaituko da.
  - 2011ko maiatza. Epaimahaia elkartuko da irabazleak zein diren erabakitzeke, irabazleak zein diren publikoki jakinaraziko da (ikastetxeak, irakasleak, ikasleak) eta sariak emango dira.

### 3 Sariak

a. **Bederatzi lehen sari** ezarri dira:

- Hiru DBHko lehen zikloko lan onenentzat.
- Hiru DBHko bigarren zikloko lan onenentzat.
- Hiru batxilergoko/erdi-mailako heziketa-zikloetako lan onenentzat.

b. Hauek dira sariak:

- **Ikasleentzat**

- **90 euroko TXEKEA**, liburuak erosteko.
- **ORDENAGAILU ERAMANGARRI** bat lan saridunen egile den ikasle bakoitzarentzat.

- **Irakasleentzat**

- **150 euroko TXEKEA**, liburuak erosteko.
- **ORDENAGAILU ERAMANGARRI** bat ikerketa saridunak koordinatu dituen irakasle bakoitzarentzat.

- **Ikastetxeentzat**

- **600 euroko TXEKEA**, ikastetxe saridunetako liburutegietarako liburuak erosteko.

c. Sarien ordeaz ezin da jaso sari horien balioa dirutan. Liburuak erosteko jasotako txekeak CEGAL Espainiako Gremioen eta Liburu-saltzaileen Elkartearen Konfederazioari atxikitako saltokietan aldatuko dira.

d. Parte-hartzaile guztiek diploma digital bat jasoko dute (irakasle-koordinatzaileari bidaliko zaio, eta esdelibro.es webgunetik ere deskarga daiteke), lehiaketan parte hartu dutela ziurtatzeko. Lan bat bidali duten ikasleek Es de libroren MOTXILA bat jasoko dute, eta, lan bat edo gehiago koordinatu dituzten irakasleek, berriz, MEMORIA-GILTZA bat.

e. Finalera iritsi diren lanak egin dituzten taldeek (gehienez hamar kategoria bakoitzean) epaimahaiaren aipamen berezia jasoko dute.

### 4 Parte hartzeko baldintzak

a. Hona hemen talde parte-hartzaileen eginbeharrak:

- **Lan original** bat egitea. Lanek originalak izan behar dute, lehenagotik osorik edo partzialki argitaratu gabeak, eta beste sariketaren batera aurkeztu gabeak.
- Lan pertsonal bat egitea. **Ikasleek egin eta idatzi behar dute**, eta irakasleak ikuskatu eta koordinatu. Aintzat hartuko da lanak ikasleen hezkuntza-mailakoak izatea.

- Aukeratutako lanaren arabera, **ikerketa-metodologia ona** erabiltzea (liburutegiak bisitatzea, Internet kontsultatzea, elkarrizketak edo inkestak egitea, proba esperimentalak egitea...).
  - **Jabetza intelektualaren** eskubide guztiak errespetatu behar dira (debekatua dago legez kanpoko fotokopiak egitea; lanetan Jabetza intelektualaren legeak babestutako irudiak, testuak, musika-obrak, ikus-entzunezko obrak edo bestelako sorkuntzak sartzea, eskubideen titularrak direnei edo eskubide horiek kudeatzen dituzten erakundeei aurrez baimenik eskatu gabe, Legeak baimendutako kasuetan —eta legeak adierazitako moduan— ezik).
  - **Liburu eta dokumentu** askotarikoak erabiltzea (entziklopedia inprimatuak edo elektronikak, liburu monografikoak, aldizkari edo egunkarietako artikuluak, Interneteko eduki fidagarriak...).
  - Originala izatea ideiak aurkeztean; **ez kopiatzea eta ez plagiatzea.**
- b. Lanak **taldetan** egin behar dira (gutxienez bi ikasle eta gehienez lau izango dira talde bakoitzean), eta **beti irakasle bakar batek koordinatu behar ditu.**
- c. **Ikasle edo talde batek behin bakarrik har dezake parte.** Irakasle berak gehienez sei lanetan eman dezake izena, eta gehienez sei lan aurkez ditzake.
- d. Lanak koordinatuko dituzten **irakasleek zeregin** hauek izango dituzte:
- **Ikasleak motibatzea eta** lan-prozesuan gidatzea.
  - Lehiaketako helburuak eta oinarriak **betetzen dituzten lanak** egiten dituztela ziurtatzea.
  - Lanek **egile-eskubideak** eta jabetza intelektualeko arauak ahalik eta gehiena errespetatu ditzaten zaintzea.

## 5 Izen-ematea

- a. Parte-hartzaileek esdelibro.es web-aren atalean eman behar dute izena (Eman izena).
- b. Izen-ematea formalizatu ondoren, irakasleak **identifikazio-zenbaki** bat eta jakinarazpen bat jasoko ditu posta elektronikoz, parte-hartzea baliozkotzeko. Identifikazio-zenbakia lana bidaltzeko behar da. Izena eman duten irakasle eta ikasleek Es de libroren webgunetik deskarga ditzakete ikerketa-lanean laguntzeko gidak eta materialak.
- c. **Behar bezala betetako izen-emateak** baino ez dira onartuko. Ezarritako ordutegi eta datetatik kanpo jasotako izen-emateak ez dira bideratuko.
- d. Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren arabera (abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa), «identifikatu daitezkeen nahiz identifikatu ezin diren pertsona fisikoei dagokien informazio guztia da datu pertsonala». Erabiltzaileek esdelibro.es webeko inprimakien bidez baimentzen dituzten datu

pertsonaletarako sarbidea bakarrik izango du ESKUBIDE ERREPROGRAFIKOEN ESPAINIAKO ZENTROAK (hemendik aurrera CEDRO deituko diogu). Indarrean dagoen araudia betetzeko, datu pertsonalen segurtasuna mantentzeko behar diren neurri teknikoak eta antolamenduari dagozkionak hartu ditu CEDROK. Gainera, baimendu gabeko sarbideak saihesteko behar diren mekanismoak instalatu ditu.

Jakinarazten dizugu, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak dioenarekin bat (Datu Pertsonalak Babestekoa), zure datuak fitxategi batean egongo direla, eta CEDRO dela fitxategi horren arduraduna. Gainera, datu horiek eskatutako zerbitzua kudeatzeko eta bideratzeko erabiliko dira, eta baita gure jardueri buruzko informazioa eta egile-eskubideekin eta kulturarekin loturiko informazioa bidaltzeko ere.

Horrez gain, jakinarazten dizugu sarbide-, zuzenketa- eta baliogabetze-eskubideak dituzula, eta eskubidea duzula, baita ere, gure jardueri buruzko informazioarekin eta egile-eskubideekin eta kulturarekin loturiko informazioa bidaltzeko zure baimena baliogabetzeko. Horretarako, mezu bat bidal dezakezu [cedro@cedro.org](mailto:cedro@cedro.org) helbide elektronikora, edo gutun bat idatzi helbide honetara: Miguel Ángel, 23, 28010 Madrid.

## 6 Lanak bidaltzea

a. Talde bakoitzak fitxategi konprimatu bat bidali behar du. Gehienez 8 MB-ko tamaina izan behar du, eta eduki hau izan behar du:

- Egindako **lana**: testu-dokumentua, bideoa, diapositiba-aurkezpena, soinu-fitxategia, web orria... izan daiteke. Lana testu-formatuan aurkeztuz gero, ordenagailuz idatzita egon behar du; A4 formatua, 12 puntuko letra-tamaina eta 1,5eko lerroartea izan behar ditu. Gehienez 20 orrikoa izango da.
- **Txosten labur bat**, gehienez bost orrikoa. Egindako ikerketa, aukeratutako gaia, egindako urratsak, kontsultatutako dokumentazioa, ondorioak eta abar azaldu behar ditu.

Horrez gain, lanak eranskin bat edo gehiago izan ditzake, egokia irudituz gero, ikerketako emaitzak adierazteko, osatzeko edo azaltzeko material garrantzitsua biltzeko (adibidez, argazki-erreportajea, bideo-lagina, audio-grabazioak, animazioak eta abar). Eranskinak neurri edo iraupen hau izan behar dute gehienez:

- testua: 30 orrialde
- diapositiba-aurkezpena: 20 diapositiba
- bideoa: 10 minutu

Lana, txostena eta eranskinak Espainiako edozein hizkuntza ofizialetan aurkez daitezke. **Formatu digitalean aurkeztutako lanak baino ez dira onartuko.**

b. Lanak bidaltzeko, Bidali lana atalean ageri den **formularioa** erabili behar da. Lana bidali aurretik, taldearen irakasle koordinatzailearen helbide elektronikoa eta

lehiaketan izena ematean jasotako identifikazio-zenbakia eskatuko zaizkizu. Lehiakidearen nortasuna egiaztatu ondoren bidali ahal izango da lana.

Lanaren fitxategiak 8 MB-ko gehieneko tamaina gainditzen badu edo web bidez bidaltzean arazoak gertatzen badira, concurso@esdelibro.es helbide elektronikora edo ohiko postaz Es de libro-ren Idazkaritza Teknikora bidal daiteke —CDan edo DVDan—, betiere ezarritako epeen barruan. Hau da Idazkaritza Teknikoaren helbidea: c/ Clavileño, 22. 28002. Madrid.

- c. Edozein zalantza edo arazo argitzeko, (tamaina handiagoko fitxategiak bidaltzea, identifikazio-zenbakia ahaztea...), jarri harremanetan esdelibro.es-ekin concurso@esdelibro.es helbidera mezu bat idatziz.

## 7 Lanak ebaluatzea eta argitaratzea

- a. Lanak jaso ahala, lehiaketako gaien irakasleek eta adituek osatutako **batzorde tekniko** batek gainbegiratuko ditu, eta jabetza intelektualeko arauak errespetatzen diren egiaztatuko du. Halaber, gutxieneko kalitatea bermatu behar da, lehiaketan formalki sartzeko.

Batzordeak kanpoan utziko ditu hasieratik bukaerara edo zati batean plagioa egin duten lanak. Batzordearen arabera ikasleek egin ez dituzten lanak ere baliogabetu egingo dira.

Erakundeak **eskubidea du** analisi- eta balorazio-prozesuko edozein unetan **lanak kanpoan uzteko**, baldin eta frogatzen badu lehiaketako arauak ez dituela betetzen.

- b. Lan saridunak edo finalera iritsi direnak **esdelibro.es web orrian argitaratuko dira**. CEDRO haien egileekin edo lege-ordezkariekin harremanetan jarriko da, dagozkien argitaratze-baimenak formalizatzeko, argitaratze-kontratu baten bitartez. Lana argitaratutakoan, irakasle koordinatzaileari jakinaraziko zaio.
- c. Hautagaiek aurkeztutako lan guztiak argitaratzeko (linean, paperean), erakusgai jartzeko edo interes kulturalagatik egokitzat hartzen diren bestelako helburuetarako erabil daitezke, egilearen edo lege-ordezkariaren aurretiko baimena izanez gero. Argitaratutako lanak egileenak baino ez dira, eta haiek dira lanetako edukien eta haietan adierazten den guztiaren erantzule.

## 8 Epaimahaiaren erabakia

- a. Sarien erabakia 2011ko maiatzean jakinaraziko da. Epaimahaia hainbat ezagutarlotan (arte, pentsamendua, literatura, musika, zientzia...) ospetsu diren pertsonen osatutako dute. Kide guztiek lehiaketako lan onenen hautaketa bat jasoko dute, eta **lehen sariak** erabakiko dituzte.
- b. **Ebaluazio-irizpideen** artean, lehiaketa-oinarrietan eskatutako baldintza formalez gain, oinarri hauetako 4. puntuan aipatutako alderdiak kontuan hartuko dira.

- c. 2011ko maiatzean emango dira aditzera irabazleen izenak, eta sarien berri emango zaie.
- d. Epaimahaiaren erabakia **apelaezina** izango da, eta hark argitu behar ditu lehiaketa-oinarriak interpretatzean sor litezkeen zalantzak. Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri guztiak onartzen direla.

## **9 Eskubideak erreserbatzea**

- a. Erakundeak **eskubidea** du noiznahi lehiaketako baldintzak **aldatzeko**, baita aurrez ezarritako epearen aurretik bertan behera uzteko ere, betiere horretarako bidezko arrazoia badago. Gainera, konpromisoa du oinarri berriak, lehiaketako baldintzak edo behin betiko bertan behera uztea jakinarazteko, behar adinako aurrerapenez eta publizitatea eginez.
- b. Oinarri hauek Carlos Solís Villa jaunaren/andrearen notariotzaren aurrean sinatu dira (helbidea: calle Velázquez 16, 2º dcha, Madrid), eta [www.esdelibro.es](http://www.esdelibro.es) web orrian kontsultatu daitezke.